

## **BEZEROEKIN KOMUNIKAZIOA**

Garrantzitsua ikusten dugu gure pazienteekin komunikazio eraginkorra, hurbila eta konfidantzazkoa izatea; horregatik gure laguntza hartzeko prest dagoen edozeini eskainiko diogu gure aplikazioa modu horretan lagunduz. Fideltasuna eskainiko diogu eta datuen babesa baita ere. Oso garrantzitsua da pazienteak aplikazioan sartzen denean leku segurua dela ikustea modu osasuntsuan erabili ahal izateko.

Aplikazioan sartzerakoan agertu den lehenengo mezua hau izango da: Hau aplikazio bat da zure osasun mentala hobetzen saiatzeko eta ahalik eta gehien laguntzen saiatuko gara, zure osasuna garrantzitsuena delako eta guretzako zure osasuna ezinbestekoa delako. Baina, kontuan izateko gai bat da. Aplikazio hau ez da psikologo pertsonal bat izatea bezala eta gomendatzen dizugu aukera izanez gero atentzio pertsonalizatuago bat edukitzera, hau da, psikologo fisiko batera joatea. Ekonomikoki edo pertsonalki ezin baduzu laguntza profesionala jasan, aplikazio hau erabiltzea gomendatzen dizugu. Jarraitu aurretik esan beharra dago hau ez dela psikologoaren sustitutibo bat, laguntza eskaintzeko beste modu bat baizik. Aplikazio honetan zure umeak arazoak dituela pentsatu ezker, kontsultak edo artikuluak irakurri ahalko dituzu, adibidez, autismo, TDAH, eskizofrenia... Modu honetan agian ez da beharrezkoa izango umea psikologora eramatea eta etxetik eramanez ahalko da arazoa aplikazioko aholkuak kontuan hartuz.

Aurrekoari erreparaturik, badakigu familia asko daudela psikologo bat ezin dutenak ordaindu eta hau arazoak konpontzeko irtenbide egoki bat izan daiteke. Dakigunez, osakidetzara deituta hitzordua eskatu daiteke, baina horrek hilabeteak luzatu daiteke eta denbora askoz itxaron zerrendan pasatu.

Beste batzuetan, gertatu daiteke, psikologora joatea ez animatzea sozialki txarto ikusita dagoen gai bat delako eta lotza sentitzea. Hau pertsona nagusietan gertatzen da batez ere eta izan daiteke bultzada bezala baliogarria izatea zure bizitza hobetzen hasteko.